

Funtsezko baliabideak

EcoTask garatzeko eta mantentzeko behar ditugun baliabideak lau multzotan banatzen dira. Lehenik baliabide fisikoak ditugu, hau da, aplikazioa sortu eta funtzionamendua bermatzeko behar diren ordenagailuak mugikorrek zerbitzariak datu baseak eta diseinu zein interneteko tresnak. Bigarrenik baliabide intelektualak ditugu eta horien artean daude gure marka eta logotipoa aplikazioaren diseinua eta programazioa eta sortzen ditugun eduki eta irudi propioak. Hirugarrenik giza baliabideak daude eta hauek dira gure proiektuaren oinarri nagusia, hala nola programatzaileak diseinatzaile grafikoak marketin arduradunak eta ingurumenari buruzko aholkulariak. Azkenik finantza baliabideak behar ditugu aplikazioa garatzeko eta promozionatzeko, hasierako inbertsioa egiteko, diru laguntzak lortzeko edo babesleak bilatzeko eta baita erabiltzaileen edo iragarleen bidez diru sarrerak lortzeko.